



Nerea Mendizabal Etxeberria – Hezitzailea Komunikazio Ez Bortitzean.

Nerea Mendizabal Etxeberria Gizarte Hezkuntzan diplomaduna (1997) da eta Psikopedagogia lizentziaduna Bilboko Deusto Unibertsitatean (1999). Haur-masajean hezitzaile-titulua ere eskuratu zuen AEMIren eskutik, Bartzelonan (2002). 2002tik 2015era arte, Gipuzkoan ehunka ikastaro eman ditu guraso eta hezitzaileei zuzenduta, haur-masajean eta komunikazioan oinarrituta. 2005etik Komunikazio Ez Bortitzean etengabeko prestakuntza jaso du Madrilen eta Mexikon, eta, geroztik, Euskal Herrian ikastaroak, hitzaldiak eta eskolak ematen ari zaizkie gurasoei, irakasleei eta enpresei.

Sorkuntzan ere murgilduta dago azken urteetan, eta bere argitalpenen artean honako hauek nabarmentzen dira: *Zutani* jolasa (2012, Zutani), *Bizitzarako altxor kutxa* aplikazioa (2018), *Elkarrekin hazi* liburua (2019), *Jirafa Hizkuntza* ipuina (2021), *Kira jirafa eta haserrearen diamanteak* ipuina (2021).

2018tik aurrera, hezitzailea da Komunikazio Ez Bortitzean, *Non violent Communication* zentroak ziurtatua.